

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Diputatu Nagusiaren 435/2018 Foru Dekretua, urriaren 31koa, onesten duena diru laguntza lerro bat ematea energia jasangarritasun jardunak sustatzeko eta luzatzea gastuak gauzatu eta 2018ko dokumentazioa aurkezteko epea 2018ko abenduaren 21era arte**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuak onetsi egin zituen energia jasangarritasun jarduerak sustatzeko diru laguntza lerroaren oinarri arautzaileak eta 2018-2019ko ekitaldirako deialdia.

Ebazpen proposamen honek bete egiten du oinarri horietan dagoena, zehazki honako haue-tan jasotakoa: "7. Diru laguntzak emateko prozedura. Eskaerak baloratzeko eta diru laguntzak emateko irizpideak. Diru laguntzen zenbatekoa" eta "8. Eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa. Eskaeren epeak eta epe barruan ez ebaztearen ondorioak".

Laguntza lerroak honako jardun mota hauek lagunduko ditu diruz:

1. mota. Inbentario energetikoak egitea, eraikin eta ekipamendua, parke mugikor eta argiteria publikoko instalazioak, kontsumoen kontrola, ikuskaritza energetikoa, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak, jardun energetikoen planak eta hiri mugikortasuneko planak.

2. mota. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabi-deak ezartzea, kontsumitzen den energia benetako beharrianetara egokitzeko.

3. mota. Eguzki bidezko argizatze ekipamendua.

4. mota. Energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazioak eta ekipamendua, aprobetxamendu termikoko eta elektrizitatea sortzeko sistemak barne: eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaiakoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa.

5. mota. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki ener-gia termikoa, eguzki energia fotovoltaiakoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa aprobetxatzeko, baita erabilera publikoko karga elektrikoko azpiegiturak ere.

6. mota. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bizikletentzakoak barne. Kargatzeko puntuak erabilera publikorako izango dira edo erakunde onuradunaren ibilgailue-tan erabiltzeko.

7. mota. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, 21 erakundek 24 diru laguntza eskaera aurkeztu zituzten beste horrenbeste jardun garatzeko.

Eskaerei aurre egiteko gehienezko zenbatekoa 181.810,00 eurokoa da, urteka horrela bana-tuta:

AURREKONTU PARTIDA	URTEA	ESLEIPENA
60205.6400.7620002 Energia eraginkortasuna eta kudeaketa	2018	31.810,00
60205.6400.7620002 Energia eraginkortasuna eta kudeaketa	2019	150.000,00
<b>Guztira</b>		<b>181.810,00</b>

Behin eskaerak jaso ondoren eta ezetsiak alde batera utzita, hona hemen jardun mota bakoitzerako guztira eskatutako diru laguntzak:

JARDUN MOTA	ESKATUTAKO LAGUNTZA (GEHINEZ)	EHUNEKOA	2018. URTEKOA	2019. URTEKOA
1	3.027,09 euro	Ehuneko 1,78	3.027,09 euro	0,00 euro
3	37.112,03 euro	Ehuneko 21,87	20.675,39 euro	16.436,64 euro
4	114.931,31 euro	Ehuneko 67,73	7.308,38 euro	107.622,93 euro
6	6.560,62 euro	Ehuneko 3,87	1.796,12 euro	4.764,50 euro
7	8.061,39 euro	Ehuneko 4,75	5.061,39 euro	3.000,00 euro
<b>Guztira</b>	<b>169.692,44 euro</b>	<b>Ehuneko 100,00</b>	<b>37.868,37 euro</b>	<b>131.824,07 euro</b>

Balorazio Mahaiak aurkeztutako eskaerak aztertu ditu eta puntuazioa eman die zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera, proposamenek gutxieneko kalitate teknikoa dutela ziurtatzeko eta erabakitzeko zein eskaerei eman laguntza eta zein utzi diru laguntzarik gabe aurrekontua agortutakoan. Zazpigarren oinarrian ezarritako balorazio irizpideak honako hauek dira:

A) Proposatutako jardunaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa; 40 puntu gehienez.

B) Inbertsioaren eraginkortasuna, honela neurtuta: energia aurrezpena kostuarekiko erlazioan; 30 puntu gehienez.

C) Jarduna zenbateraino den berritzailea eta esperientzia pilotua izateko aukera duen; 10 puntu gehienez.

D) Jasangarritasuneko edo energia aurrezteko eta energia eraginkortasuna hobetzeko toki erakundeak onartutako planaren barruan egotea jarduna; 10 puntu gehienez.

E) Erakunde onuradunak 500 biztanle baino gutxiago izatea: 10 puntu gehienez.

Aurrekontua erabilgarri izango duten eskaera guztiek oinarriek jasotako gutxieneko puntuazioa lortu dute: 28 puntu 1., 2., 3., 5. eta 7. motako jardunek eta 50 puntu energia berriztagarrien aprobetxamendurako ekipamenduek eta instalazioek eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak (4. eta 6. motak).

Urte bakoitzean emandako diru laguntzak eskaera egin duten erakunde onuradunek adierazitako gastu aurreikuspenaren arabera eman dira, eta diru laguntza lerro honetarako esleitutako urteko kopuruak horrela berresleitu dira:

MOTAK	URTEA	HASIERAKO ESLEIPENA	ESLEIPEN BERRIA	ALDEA
Energia eraginkortasuna eta kudeaketa	2018	31.810,00	37.868,37 euro	6.058,37 euro
Energia eraginkortasuna eta kudeaketa	2019	150.000,00	131.824,07 euro	— 18.175,93 euro
<b>Guztira</b>	<b>Biak</b>	<b>181.810,00</b>	<b>169.692,44 euro</b>	

Horregatik guztiagatik, abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasiera batean aurreikusitako zenbatekoa berresleitzea: 2018ko zenbatekoa 6.058,37 euro handitzea eta 2019ko zenbatekoa 18.175,93 murriztea. Hortaz, zenbatekoak horrela geratuko dira:

— 2018. urtea: 37.868,37 euro (Xedapen erref.: 105-3170 / 18.1.18).

— 2019. urtea: 131.824,07 euro (Xedapen erref.: 105-171 /18.3.19).

Guztira, beraz, 169.692,44 euro izango dira, Arabako Foru Aldundiaren 2018. urteko aurrekontuko 60.2.05.64.00.762.00.02 "Energia eraginkortasuna eta kudeaketa" partidaren konturako.

Bigarren. I. eranskinean (Emandako diru laguntzak) ageri diren erakundeei laguntza horiek ematea, egin beharreko jardunak gauza ditzaten. 7. oinarri arautzailean adierazten den bezalaxe, onuradunek ebazpenean ezartzen dena onartzen dutela ulertuko da, haren jakinarazpena jasotzen dutenetik 10 egun baliodunetan diru laguntzari idatziz uko egiten ez badiote.

Hirugarren. II. eranskinean (Eskaera ezetsiak) agertzen diren erakundeen eskaerak ezestea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Laugarren. Diru laguntzak ordainduko dira, 9. oinarriaren arabera, haien emakidaren helburua den jarduna gauzatu dela frogatu eta 31/2018 Foru Dekretuaren II. eranskinean azaltzen den dokumentazioa aurkeztu eta gero. 2018ko gastuen ordainketa jaso ahal izateko eskatutako dokumentazioa aurkezteko gehineko epea 2018ko abenduaren 21a izango da eta uztailaren 19a 2019. urtekoen kasuan; izan ere, diru laguntza eskaeren ebazpena ematean atzerapena izan da eta ez zaie interesdunei urriaren amaiera arte jakinaraziko.

Bosgarren. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2018ko urriaren 31

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**AMAIA BARREDO MARTÍN**

### I. eranskina EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

MOTA	ERAKUNDEA	JARDUNA	AURREKONTUA	ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZA	EMANDAKO DIRU LAGUNTZA	2018. URTEKOA	2019. URTEKOA
1	Lapuebla de Labarcako Udala	Lapuebla de Labarcako argiteria publikoaren ikuskaritza energetikoa	4.036,12 euro	3.027,09 euro	3.027,09 euro	3.027,09 euro	0,00 euro
3	Andako AB	Andako hainbat toki argizatzea 5 eguzki farolaren bidez	16.262,40 euro	6.504,96 euro	6.504,96 euro	6.504,96 euro	0,00 euro
3	Zalduondoko Udala	5 eguzki farola fotovoltaiko instalatzea	20.284,14 euro	8.113,66 euro	8.113,66 euro	8.113,66 euro	0,00 euro
3	Arroiabeko AB	Herrigunetik kanpo 6 eguzki farola jartzea	9.196,00 euro	3.678,40 euro	3.678,40 euro	3.678,40 euro	0,00 euro
3	Sarriako AB	Sarriako kaleetan 4 luminaria jartzea	11.083,60 euro	4.433,44 euro	4.433,44 euro	0,00 euro	4.433,44 euro
3	Maturanako AB	Eguzki argiztapen ekipamenduak (2 eguzki farola)	5.945,94 euro	2.378,38 euro	2.378,38 euro	2.378,38 euro	0,00 euro
3	Kanpezuko Udala	Eguzki energia fotovoltaikoko 8 farola instalatzea	30.008,00 euro	12.003,20 euro	12.003,20 euro	0,00 euro	12.003,20 euro
4	Kontrastako AB	Oinarrizko zolaketa zerbitzuak eta District-Heating delakoa berritzea (1. fasea)	265.505,49 euro	265.505,50 euro	75.000,00 euro	0,00 euro	75.000,00 euro
4	Donemiliagako Udala	Biomasa galdara instalatzea (klimatizazioa eta ur bero sanitarioa) udal eraikinen District-Heating delakoan	50.656,95 euro	20.262,78 euro	20.262,78 euro	4.457,90 euro	15.804,97 euro
4	Sabandoko AB	Gizarte zentroa Sabandoko Administrazio Batzarreko District-Heating delakora lotzea	34.707,68 euro	13.883,07 euro	13.883,07 euro	1.388,31 euro	12.494,76 euro
4	Sarriako AB	Eguzkia energia fotovoltaiko instalazio bakartua Sarriako errotan	4.018,93 euro	1.607,57 euro	1.607,57 euro	0,00 euro	1.607,57 euro
4	Laminoriako Errege Haraneko AB	Arboro elkarteko 540 OPMan etxeko abereak hornitzeko zundaketa pompa ordeztzea eta eguzki energia fotovoltaiko bidezkoa jartzea	10.444,72 euro	4.177,89 euro	4.177,89 euro	1.462,26 euro	2.715,63 euro
6	Antoñanako AB	Ibilgailu elektroentarako karga puntuak instalatzea, bizikletak bame.	7.326,55 euro	2.930,62 euro	2.930,62 euro	586,12 euro	2.344,50 euro
6	Laudioko Udala	Ibilgailu elektroentarako bi karga puntu erostea eta udal biltegian instalatzea	6.050,00 euro	2.420,00 euro	2.420,00 euro	0,00 euro	2.420,00 euro
6	Okondoko Udala	Ibilgailu elektroentarako karga puntu bat instalatzea	3.025,00 euro	1.210,00 euro	1.210,00 euro	1.210,00 euro	0,00 euro
7	Laudioko Udala	Obra eta mantentze laneko udal brigadarako bi furgoneta elektriko erostea	58.593,08 euro	8.788,96 euro	3.000,00 euro	0,00 euro	3.000,00 euro
7	Iruña Okako Udala	Ibilgailu elektriko bat erostea	13.742,58 euro	2.061,39 euro	2.061,39 euro	2.061,39 euro	0,00 euro
7	Okondoko Udala	Ibilgailu elektriko bat erostea	21.500,00 euro	3.225,00 euro	3.000,00 euro	3.000,00 euro	0,00 euro

### II. eranskina ESKAERA EZETSIK

MOTA	ERAKUNDEA	JARDUKETA	EZESTEAREN ARRAZIOA
1	Samaniegoko Udala	Energia ikuskaritza egin eta egokitzea	Ez da zuzendu
1	Moreda Arabako Udala	Argiteria publikoaren energia ikuskaritza	Epez kanpo aurkeztua
3	Aguraingo Udala	Eguzki argiztapeneko ekipamendua	Epez kanpo aurkeztua
—	Bujandako AB	Kanpo argiteria publikoa LED argiez ordeztzea	Jardun mota honek ezin du diru laguntzarik jaso
—	Urturiko AB	Kanpo argiteria publikoa LED argiez ordeztzea	Jardun mota honek ezin du diru laguntzarik jaso
—	Gillernako AB	Kanpo argiteria publikoa LED argiez ordeztzea	Jardun mota honek ezin du diru laguntzarik jaso